

AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

Ezaugarriak

Kurtsoaren ebaluazioak hurrengo ezaugarriak betetzen ditu:


Ikasle bakoitzak bere kabuz burutu dezake, erantzunak eta azalpenak eskuragai baitaude.

Ebaluazioa, kurtsoan zehar jarraitua izateko asmoarekin prestatuta dago; horrela izanda, ikasle bakoitzak bere aurrerapenak konprobatu ahal ditu eta kurtsoaren ikasketarekin aurrera jarraitzeko eskuratu behar diren zenbait kontzeptuetan topa daitezkeen akatsak igarri dezake.

Horretaz gain, azken ebaluazioa proposatzen da, kurtsoan azaldutako kontzeptu gehienak biltzen dituen ariketa baten inguruko galdera sorta.

Sarrera

Ariketa bakoitzarekin batera, ariketa horri dagokion ebaluazioa aurkezten da. Bertan sartzeko, eskumako laukizuzenaren gainean arratoiarekin sakatu behar da, ikusi 1go. Irudia.



1. Irudia

Azken ebaluazioa, Autoebaluazioa izendaturiko, 5. atalean topa daiteke.

Metodologia

Autoebaluazioa ondo burutzeko, ariketa bakoitzean hurrengo pausuak jarraitu behar dira:

- Ariketa bakoitza, ebazpena eta azalpenak erabiliz burutu. Beharrezkoa izatekotan, kurtsoaren atal teorikoak errepasatu.

- Proposatutako galderak aztertu (irakurketa sakon bat beharrezkoa da) eta aukeraturiko erantzunak apuntatu, eskematikoki justifikatuz.
- Aukeraturiko erantzunak zuzenak diren errepasatu, kurtsoaren autoebaluazioak proposatzen duen aukera ulertzen den justifikatuz.

Ariketa bakoitzari dagokion autoebaluazioa guztiz gainditu aurretik ez hasi hurrengo ariketa garatzen.

Azken autoebaluazioari dagokionez, bukaerarako uztea gomendatzen da, kurtsoaren kontzeptu gehienak biltzen baititu: translazio hutsa, errotazio hutsa, mugimendu orokorra eta mugimendu erlatiboa. Ariketa bi era ezberdinetan burutzea proposatzen da.

Galderak ariketari dagokion orden egokian proposatzen dira, planteamenduaren inguruko galderekin hasten da eta ondoren ebazpenari buruzko galderak proposatzen dira. Era berean, emaitza partzialak topa daitezke, puntu horretaraino ebazpena zuzena dela baieztatze edo akatsen bat topatzen laguntzeko.

Irizpidea

Jarraian, lortutako emaitzen arabera jarraitu beharko zen jokabidea laburtzen duen taula ikusi daiteke.

0-30% Erantzun zuzen	30-70% Erantzun zuzen	70-90% Erantzun zuzen	90-100% Erantzun zuzen
Oso desegokia	Desegokia	Egokia	Oso egokia
Teoria errepasatu eta ariketa berrir egin	Teoria errepasatu eta ariketa berrir egin	Teoria eta akatsak errepasatu	Akatsak errepasatu

